

## EGIN TXOTX! EUSKARAZ

**A**EK-k II. SAGARDOTEGI EGUNA OSPATU-

KO DU BIHAR ASTIGARRAGAN. AURTEN, ORDEA, AFARIA IZAN EZIK, BAZKARIA ERE EGINGO DA. ARRATSALDEKO ORDUBI ETA ERDIETAN HASI ETA GOIZALDEKO ORDUBIAK BITARTEAN, JANARIA, MUSIKA ETA FESTA IZANGO DUTE BERTARA GERTURATUKO DIREN HIRU MILA LAGUNEK.

Joan zen urteko esperientzia onuragarria ikusita, AEK-k II. Sagardotegi Eguna antolatzea erabaki du. Lehenengo edizioan bezala, antolatzaileen helburua «sagardotegietan euskarari bultzada ematea da». Jose Luis Olaziregi Sagardotegi Egumaren antolatzailearen ustez, «sagardotegien moda areagotu denetik, gero eta gaztelania gehiago entzuten da. Gure nahia moda hori haustea da, ez sagardoarena, noski, gaztelaniaz mintzatzearena baizik. Horregatik gure apustua euskaraz hitz egingo duten 3.000 pertsona eramatea da, ikasleak zein irakasleak».

Joan zen urtean, leku eskasiagatik, Sagardotegi Egunean bildutakoek, Hernani eta Astigarragan ez ezik, Oiartzundik Tolosara bitartean dauden sagardotegietan afaldu behar izan zuten. Jose Luisek kexak izan zirela agertzen digu: «Garaiotan ezinezkoa da Hernani eta Astigarragan hainbeste pertsonarentzat afaria egitea. Horregatik, aurten, bazkaria egitea erabaki dugu, horrela guztiok gera gaitzke Astigarraga inguruan. Gainera, honela, eguna gehiago aprobetxatuko dugu».

Bazkariaren prezioa 2.500 pezeta izango da, ohi baino merkexearago. Menua betikoa da: bakailao tortilla, takoak, txuleta, gazta, menbrilao, intxaurrak eta... sagardoa.

Astigarragara agertuko direnek, ordea, bazkari goxoaz gain festa ere izango dute.



Arratsaldeko seietatik hasi eta goizeko ordubiak arte, gustu anitzetako musika izango da, hala nola, Txatunga Benbe perkusionista mungiarrena, Etzakit, Anje Duhalde eta Akelarre.

Jose Luisek garbi utzi nahi du hau ez dela AEK-kideentzako jai eksklusiboa. «Guk elkartutako 3.000 lagunez gain, asteburu kaeretan sagardotegira bisita egiten dutenak izango dira. Hauentzat ez da zerbaite itxia izango, beraien ere doan hartu ahal izango dute parte AEKren jaietan».

Autobusak ordu nbiak arte izango dira Astigarragan. Ondoren, bakoitza bere etxera. Jaiak, ordea, geratzen direnentzat segituko du.

Joan zen urteko esperientzia positiboa ikusita, AEK-k Sagardotegi Eguna urtero antolatzea erabaki du. Bigarren hau ere Astigarragan egingo den arren, litekeena da hurrengo urtean lekuz aldatzea.

Aurten joango ez zaretenok has zaitezke, beraz, hurrengorako izena ematen. ■

### ASTIGARRAGA Etxeko konponketen inguruko tailerra

Udalak tailer bat antolatu du herriko langabetuentzat. Kurtsoaren izena "Eguneroko bizitza eta etxe-konponketak" da eta bi arlotan banatuko da. Alde batetik, arlo teknikoan jorratuko da tresna elektrikoaren mantenimendua, oinarriko pintura teknika, altzariak berriztatzea eta era horretako konponketak ikasiko dira. Horrez gain, eguneroko bizitzarako jakin behar diren elikadura ohitura, lan merkatua eta fakturak, besteak beste, landuko dira. Informazio gehiago 33 52 32 telefonon.